

Iurreta

JEAN LOUIS DAVANT



LUZAZ Duran-gori loturik egon zen bizkaitar herri hau. Aurten berri bere gain jarri zaigu. Antonio Abadiak antolatutako eskual jaien mendeurrena ospatu du Jaundoni Mikel. Bezpera arratscan hasi da dena. Abadiaren biziaz eta obrak emana zen mintzaldi batekin. Hain zuzen, ni nintzan mintzalaria eta ohore handia zitzaizkan Urruetoiko ene herritar eta herrikide handiaren aipatzea, hura duela ehun urte gertatu zen ber tokian jarririk.

Oso hungi-garria zitzaizkan gero arbolaren zeremonia, herriko plaza erdian, jende oste baten artean, zutik eman dutelarik 24 metroko masta luzea, urteko haritz batez koronatu. Urtero ospatzen duten ekintza da hau.

Laster herriko zortzi gazte ikusi ditugu zuhaitz mitikoaren azpian dantzan, Jaundoni Mikelen ohoretan. Dantza ederrak, zinez, eta dantzari erneak! Ez dute Zuberokoei zorrik.

Ohidura hungi-garriak badituzte Bizkaian ere, batio du haiek ikustera joaite. Ongi etorri beroena duzue han, nik ukan dutan bezala. Eskerrik asko, haurrideak. Horrela egingen dugu Abadiak oihustatzen zuen «Zazpiak Bat». Gora Iurreta!

Menditik bueltan

IÑAKI URIA



OPOR txiki batzuk pasa ditut mendian. Udazken hasi berriari gainera etorri zitzaizkan negua. Eurria. Hotza. Elurra bistan. Artziaren esanetan gogorra izango da negua.

Egunkariarik ezean, irriti txiki batez entzuten nituen berriak. Radio Nacionalen. Gauetz. Aita Santua haserre Espainian paganismoa hedatu delako. Fraga Fidelekin ron eta keimada artean adiskide... Jose Amedoren boza gartzelatik. Irratiz gartzelatik.

Xabi, Petri edo Imanolen bozak aditu nahi nituzke. Irratiz besterik ezean. Senide ez izanda, «lagun» moduan hiruetatik bat baino ez bait dago bisitazterik.

Irratiz, mendian, gose greban hasi zirela entzuten nuen. Sakabanaketa politikaren kontra. Eta Gargarekin akordatu nintzen. Tenerifen aita eta Cadizen ama. Aldatu ez badituzte behintzat.

Eta Oskar, eta Asier, eta Bixente... Eta Corunha, eta Carabanchel, eta Badajoz, eta Herrera, eta La Santé, eta Murcia, eta Sevilla... Eta HIESA, eta zigorrak, eta osasun baldintza eskasak, eta senideak milaka kilometro egiten karreteratan...

Bueltakoan EGUNKARIAR irakurri nuen. Ardanzak esanda, presoak ondo daudela dauden moduan. Eta udan barrena preso sozialek egindako motinak zetozikidan burura. Biziz baldintzak hobetzea zuten eska. Begien bistan dago, gartzela zigorrak gain zigor erantsia pairatzen duela presoak Espainia eta Frantziako gartzelatan.

Euskal Herriko gartzelak ez daude Gasteizko eta Iruñeko gobernuen esku. Ez dakit nik hala egonda presoan egoera hobetuko litzatekeen. Baina indarkeriaren aurka Ertzaintza gaitu den moduan ez lergeko gaizki eskual presoak ere bertako erakundeen esku bilzea.

EL DIARIO VASCO

365 kilometroak

Tamalgarria, bai, ez bait da behin batekoa izan. Pil-pilean dagoen arazoa da, oraindik ere, Euskal Komunitate Autonomoko Gobernu berria osatzerakoan euskarazko irakaskuntza geure hizkuntzaren ezagumendurik ez duen —eta euskara ikasteko asmorik ere ezaldu ez duen— Fernando Buesa lehendakariorearen esku ezarri izana. Ez dirudi, gainera, kezka handirik duenik, beste inork euskara ikasi nahi ote duten ala ez.

«Kilometroak» gutziz ekintza emankor eta egokia iruditzen zaigu. Baina ez du inork ere aitzakiatzat erabili behar, egun jakin batean dirulaguntza emanez urte osoan egiten diren axolagabekeriak estaltzeko.

(...)
Euskararen inguruan «errealismo»z jokatzekak injustizia eta bidagabekeria historikoak utzitako herentzia osorik onartzea suposatzen du. Bai euskal hizkuntzarekin egindako bidagabekeria historikoa. Eta baita, sentitzeko eta elkar ulertzeko hizkuntza honetaz baliatzen den herriarekin egindako injustizia. «Errealismo»z jokatzekak euskaldunok Euskal Herrian besteren menpe bizitzea onartzea suposatzen du.

EDITORIALA / 1991-X-7



Agintari nafarrei bisita egin zien atzo Allik. Jaime alkateari bisita egin zion Alli lehendakariak. Autobideko lanak bisitatu ditu atzo Allik. Alli eta Otanoren arteko elkarrizketa.

EL CORREO ESPAÑOL

Etorkizunean hizkuntzak errespetatzea

Egia da funtzio publikoan lan egiten duten pertsona jakin batzuk, kasuren batean, ahalegin handiagoa egin beharko dutela. Horregatik eman nahi dira erraztasun guztiak, epe luzeak eta prestakuntza egokia, eta heziketa elebiduna lehen urteetatik, guk hizkuntza «sine qua non» baldintza bihurtu gabe, Administrazioan lana egiteko. Gasteizko Udaleko 1529 lanpostuetatik % 14an bakarrik eskatzen da derrigorrez euskara jakitea, Bilbon 2.567 lanpostutik % 19an eta Donostian, aldiz, % 38an. Beraz, euskararen ezagupen maila eskatzeko, kontutan hartzen da udalerrri bakoitzaren

egoera soziolinguistikoa. Hori da egia, eta ez beste bat.

EDITORIALA / 1991-X-7

LE FIGARO

Joan egin behar al du?

Sistema guztia lehertu egin da egungo kontraesanak direla eta. Ezin daiteke ospatu enpresa publikoetako gestioaren autonomia eta, era berean, despido planak kontrolatu nahi izatea. Ezin da areagotu tutela estatuala sektore publikoaren gainean, eta finantzaketa pribatuko aztarnak ikertzen ibili. «Pribatizazio partzialaren» esparruan.

(...)
Edith Cressonek joan egin behar al du, jadanik P5ko sakrifikatzailek eskatu bezala? Arazoa ez dago hor, askoz zabalagoa da. Badira hamar urte sozialis-

moa kolokan dagoela. Lehendakariak herria errespetatuko bala, berehala emango lieke hitza frantsesei.

FRANZ-OLIVIER

GIESBERT / 1991-X-7

egin

Azak aldatzea

Autopsia hor dago, eta orain zer? Zer, ETAK bakarrik erabiltzen dituen 9 mm parabellumeko balekin, orain Ertzaintzak tiro egiteko erabilitako pistola guztietatik bala horiek berak atera bait ziren? Zer prestatu du Atutxak guri estaltzeko, datorren kapituluan, Mentxaka ertzain sordikarra bere lagunek hil zutela azaltzen duen froga sinesgarria? Izan ere, hori diote beldur Barne Sailean, alegia, balistikako informea argitzeari, ez?

J. IRATZAR / 1991-X-7

ZUZENDARIARI

Juan Odriozola joan zaigu

Astearte honetan, geure ohizko bileran hutsune bat zegoen geure artean, guturiko bat falta bait zen; Irailaren 27an hil zen Juan Odriozola, alegia.

Juan geure lagunak, ez zuen azken urtea atsegina eta zoriontsua izan, herri honek aspaldian jasaten duen arazoa bete bete sartu bait zitzaion etxera, bere familiara. Bere seme-alabetatik bi gartzelan edukitzea latza da. Hala ere, egoera berri hori aurre egiten jakin zuen eta ahalik eta ondoan amoldatu zen.

Bere ilusiorik handiena, seme-alabak ahalik eta gehien ikustea zen. Baina berari, geuri bezala, egunez egun zailago jartzen zioten asmo horietan aurrera jotzea. Peio Herrera de la Mancharraino eraman bait zuten, eta Simon, berriz, Parisera. Juan, bere 77 urtetan Tolosatik ia irten ez zenari, lan zaila jarri zioten seme-alabak

ikusteko. Baina hiru egunez aurrean ibili behar zuen arren, gartzelako atetan ordu luzetan itxaron behar zuten arren, zenbaitetan bisitarik egin gabe itzuli behar zuten arren. Juan beti joan ohi zitzaion bisitaztera. Seme-alabei zien maitasunak eta sentimenduek arazoak gainditzuten laguntzen zioten.

Itzuleran, Pariseko bidaia amaitzineko gorabehereak, edota Herrerako zenbait funtzionari sorturiko tentsioak kontatzen zizkigun, berak ohi zuten apaltasunarekin beti.

Berarekin atsekabe bera bizitzean, mingostasun eta poz berberak bizi genituen, geure seme-alabak Tolosan aske besarkatzeko gogo bera. Geure itxaropena politikoen hitzjarioran, Eliza eta Udaltxeo ahalguztindunagan ezarri genuen... beti alferrik izan bazen ere! Geure seme-alabak hurbileko gartzelatan edukitzearen funtsezko eskubideak paperontzian ahazturik bukatu ohi zuten.

Politikoen uestez, disperstioak ETAren amaitu behar du, eta ez dute onartu

nahi geurekin, senideekin ari direla amaitzen. Auto istripuak, bidai deserosoak, zenbait egoeren aurreko tentsio gogorrek gure bizitzan eragina dute, batipak presoan gurasoengan. Zoritxarez, 77 urterekin seme eta alaba bana milaka kilometrorako preso edukitzea eramangaitza den egoera da, eta izpiritua gaitza izan arren, gorputzak ez du hainbesteko indarrik. Ez da kasualitatea Juanek izandako enbolia ataka lau urtez gartzeleraturik dagoen semearen lehen epaiketara joateko autobusera igo aurretik gertatzea.

Geure Juan Odriozola maitea, bere seme-alabak aske ikusteke hil izanak mingostasunez betetzen gaitu, baina bere oromenak eta jarrerak geure eta geure seme-alaben eskubideen alde lan egiten lagunduko digu, berarekin hainbestetan amestutako esperantzeta eta ilusioarekin.

TOLOSAKO PRESO,
ERREFUXIATU ETA
DEPARTATUEN
SENITARTEKOAK

PERTSONAIA



Txillardegia

'Leturiaren Egunkaria' eta berdin 'Sustrai bila' argitaratu izan dituzte holako liburu pila idazle eta hizkuntzalari oparo bezain abila politikako Mahai horretatik nahiz egin agur isila erabaki hau euskararentzat mesedeko izan dadila.

ANTTON KAZABON

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:
MARTIN UGALDE

Zuzendaria:
PELLO ZUBIRIA

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria:
JOAN MARI TORREALDAI

Zuzendariordeak:
NEREA AZURMENDI
LUZIEZ ETXEZAHARRETA
IÑAKI URIA

Kontseilari Ordezkarik:
JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea:
INMA GOMILA

Publizitatea:
KORNELJO ROTETA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E
Lege Gordailua: SS 800/90

HELBIDEAK

Egoitza sozila, Pulizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabiloio / 20.160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Araba: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iraitxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 78 / 79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuna. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurdi / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2. Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11